KIROLAK-ERRONKAK:

Apirilak 1, 19:30.
Gaurkoan...

Eta eguna amaitzeko… jaiki zauden lekutik eta ariketa gidatu pixka bat egingo dugu!!!

https://www.youtube.com/watch?v=nwRpAqBc1XY

Ziur gaude gorputza mugimenduan jarrita hobeto sentituko zarela!!!

ESKULANAK:

Apirilak 1, 18:30.
Gaurkoan ...

Eskulanen ordua heldu da!!!!

Gaurkoan ere, proposamen original batekin gatoz… kandela ekologikoak!!!!

https://www.youtube.com/watch?v=4EDACFL6XBI

Zuen kandelak nola gelditu diren ikustea nahiko genuke, beraz, partekatu sare sozialen bitartez!!! ☺

JOLASAK:

Apirilak 1, 17:30.
Gaurkoan ...

Gaurko jolasa ez da pantailaren aurrean egitekoa, baina hala ere oso dibertigarria da!!!! Gaileta bat kopetan jarri eta aurpegiaren mugimendu eta keinu desberdinekin ahora sartzera jolastea proposatzen dizuegu!! Ea lortzeko gai zareten!!!!



Ariketa egiten graba zaitezkete gurekin partekatu ditzakezue FB eta instagram bitartez, barre batzuk egiteko ☺

SUKALDARITZA:

Apirilak 1, 16:30.
Gaurkoan ...

Hemen gara beste aste batez zuen alboan, eta eguraldi hotzak hasi direnez, hemen dakarkizuegu tripa berotzeko errezeta bikaina… Patatak errioxar erara!!!!

http://pagotxa.eus/errezeta/patata-errioxarrak/

Animatu eta bidali zuen argazkiak FB eta instagramera, sukaldean duzuen abilezia erakutsi!!!!